

HARRIKADIE

Poesia egunetako berripapera Ea-Bizkaia

2018ko uztailaren 13tik 15era



e. mendibelandia, "bedaruko juanen ibañeta". Grabatua eta pintura 48,5 x 48,5 cm. 2018

LURRA sustraietatik orri

Amaia Elizalde, Mizel Théret, Ibai Atutxa, Martin Bidaur, Juanjo Olasagarre, Eneritz Artetxe, Trizak (Jon Piris, Hasier Oleaga, Julen Izarra), Metrokoadroka Sormen Laborategia (Ainhoa Alberdi, Maite Aizpurua, Javi Barandiaran, Idoia Beratarbide, Corinne Cella, Amaia Corral, Iraia Elías, Ander Fernández, Jabitxin Fernández, Oier Guillán, Idoia Hernández, Unai López de Armentia, Oscar Manso, Joseba Roldán, Marina Suárez Ortiz de Zarate), Josu Landa, Gotzon Barandiaran, Itziar Castrillo, Ane García, Mice (Miren Narbaiza, Ilargi Agirre, Ibai Gogortza, Fernando Neira, Joseba Baleztena), Mari Luz Esteban, eMe (Nora Izagirre, Haritz Harreguy, Rubén Caballero), La Basu

EAPOESIAEGUNAK¹⁵

www.eakopoesiaegunak.eus

[@Eakopoesia](https://twitter.com/Eakopoesia)



gabriel arestiren
etxea

Uztailaren 13a, barikua

19:30ean HITZALDIA: Eskolondon
JON MIRANDEREN (H)AUR BESOETAKOA
 (1959-...), NONDIK ETA NORA?

Amaia Elizalde

22:30ean DANTZALDIA: Eskolondon
LEKEITIOAK

Mizel Théret



e. m. grabatua eta pintura 2018

poltsikoak hustu eta eskuak bizkarrera

Uztailaren 14a, zapatua

11:00etan HITZALDIA: Eskolondon
BESTELAKO LURRALDE, INTIMITATE ETA EUSKAL
HERRITARRAK EGUNGO LITERATURAN

Ibai Atutxa

13:00etan ERREZITALDIA: Moilan
 Poetak: Martin Bidaur eta Juanjo Olasagarre
 Musikariak: Trizak
 Kolaborazioa: Eneritz Artetxe (aktorea)

15:00etan HERRI-BAZKARIA Aritza tabernan

17:30ean ANTZERKIA: Herrian zehar
ZANBUIA!

Metrokoadroka Sormen Laborategia

20:30ean ERREZITALDIA: Portusolon
PARRAPEAN

Josu Landa, Gotzon Barandiaran, Itziar Castrillo eta Ane García

22:45ean KONTZERTUA: Eskolapean
MICE




Amaia Elizalde



Mizel Théret



Ibai Atutxa



Martin Bidaur



Juanjo Olasagarre



Eneritz Artetxe



Trizak



Metrokoadroka Sormen Laborategia



Josu Landa



Gotzon Barandiaran



Itziar Castrillo



Ane García



Mice



Mari Luz Esteban

Uztailaren 15a, domeka

11:00etan HITZALDIA: Eskolondon
LURRA, ANIMALIAK, EMAKUMEAK:
DESOKUPAZIO-ARIKETA 5 EKITALDITAN

Mari Luz Esteban


13:00etan KONTZERTUA: Moilan
EME

eMe eta Oier Guillán

15:00etan HERRI-BAZKARIA Eskoikiz tabernan

17:30ean KONTZERTUA: Frontoiko arbolapean
NI NAIZ IZOTZ ERREGINA

La Basu



eMe



Oier Guillán



La Basu



JON MIRANDEREN (H)AUR BESOETAKOA (1959-...), NONDIK ETA NORA?

Zaila da J. Miranderen *(H)aur besoetakoa* idazlan poetikoa ala prosazkoa den zehaztea. Ez zuen alferrik J. Sarrionandiak euskal idazle paristarra «autore mugaule» izendatu, ezta J. M. Iturraldeek Miranderen lana «profanazio» batekin alderatu ere. Uste baino muga gehiago zeharkatu ditu *Haur besoetakoak* euskal literaturaren geografia aldakorrean, begirada geure buruari itzultzera behartzen gaituen iraganetik hona bitarteko muga-ibilbidean.

HITZALDIA

Amaia Elizalde
19:30ean
Eskolondon
Uztailak 13
(barikua)



LEKEITIOAK

Mikel Laboaren lanik experimentalena dugu sormenaren abiapuntua. *Lekeitioak* dantza garaikide bilakatuko dira. *Orreaga, Itsasoa eta lehorra, Cherokee, Gernika* eta *Dialektikaren laudorioa* sorkuntzak hartu ditu Mizel Théret dantzariak dantzaren mugak arakatzeko gogoan. Bakarkako dantza honetarako, Laboaren musikaren interpretazio aske bat sakondu nahi du, artifiziorik gabekoa, garrasiari lotua, soiltasunez eta barnetasunez egina. Ohol-tza hutsean, oihu dantzatua.



DANTZALDIA

Mizel Théret
22:30ean
Eskolondon
Uztailak 13 (barikua)



BESTELAKO LURRALDE, INTIMITATE ETA EUSKAL HERRITARRAK EGUNGO LITERATURAN

Hitzaldi honen abiapuntua honako hau da: euskal herritarrak, lurraldeak eta intimitateak korapilatuta gaude. Korapilatuta gauden heinean, elementu bakoitzak bestea baldintzatzen du. Hortaz, elementuetako bat aldatzeak besteak ere eraldatzea dakar. Hain zuzen ere, *Bihotz handiegiak*, *Jenisjoplinek* eta *Azala erre* lanek erakusten dute hiru elementuetako bakarraz –hau da, intimitateaz bestela baliatzeak– ekar dezakeela gure herritartasun eta lurraldetasun normatiboak ezberdin erakitzea.

HITZALDIA

Ibai Atutxa
11:00etan
Eskolondon
Uztailak 14 (zapatua)



HERRI-BAZKARIA

15:00etan - Aritza tabernan
Uztailak 14 (zapatua)



e. m. grabatua eta pintura 2018

dirua zapi zurian eukon lotuta

ERREZITALDIA



Juanjo Olasagarre Mendinueta (Arbizu 1963). *Gaupasak*, *Bizi Puskak* eta *Puskak Bizi* ditu orain arteko poema liburuak. Narratiban *Ezinezko maletak*, *T* eta *Poz aldrebasa* nobelak idatzi ditu, baita *Mandelaren Afrika* bidaiakronika liburua ere. Astero zutabe bat idazten du *Deia* egunkarian azkeneko hamar urtetan. *Berrian* ere aritzen da hilabeteen behin. Eara *la hemen* poema liburua errezitatzeri etorriko da. Xabier Lete saria irabazi du liburu horrekin. Landareak eta izarrak miratzen eman nahi lituzke egunak baina lan egin beharra izaten du euskara irakasle. Hurrengo errenkarnazioan kazajoa izatea gustatuko litzaioke eta baita berriz ere homosexual jaiotzea, uste baitu horrek nortasuna erantsi diola. Auskalo nolakoa baina nortasuna.

Martin Bidaur (1996, Tolosa, Okzitania). ITU bandako kidea. *Lekore* aldizkarian eta *Pop Pilulak* fanzinean argitaratu ditu testuak. *Itzulera* (2017, Susa) du lehen poema liburua.

Eneritz Artetxe telebistan zein antzerkian jorratutako ibilbide luzeko aktorea da. Antzerki irakasle bezala ere aritu izan da luzaz. Gaur egun *Dxusturi* teatroa konpainiako kide gisa, *Karramarroa* bakarriketa ari da antzezten Euskal Herriko hainbat plazatan.

Trizak proiektuak izen bereko lehen diskoa kaleratu du Gaztelupeko Hotsak etxearekin, Errabal zigiluaren eskutik. Hirukotea da taldea, saxoa, kontrabaxua eta bateriak osatutako formazio berezia, eta musika inprobisatua du oinarri. Jazz musikan nahiz bestelako alorretako hainbat proiektutan ibilitako hiru musikari elkartu dira bertan: Jon Piris, Hasier Oleaga eta Julen Izarra. Trizak zera dira, itsasontzietan belak igo eta jaisteko sokak, bidaietako hasieren irudi. "Trizak listo eduki"

esan ohi da portuan adi egoteko eskatzen denean, etortzekoa den edozelako gertaeraren aurrean prestatuta. Badauka musika honek jazzari propio zaion abentura-gogotik, baita beste eremuetatik jasotako haize freskorik ere.



ERREZITALDIA

Martin Bidaur, Juanjo Olasagarre, Eneritz Artetxe, Trizak (Jon Piris, Hasier Oleaga eta Julen Izarra)
13:00etan. Moilan
Uztailak 14 (zapatua)



ZANBUIA!



Parte hartzaileak: Ainhoa Alberdi, Maite Aizpurua, Javi Barandiaran, Idoia Beratarbide, Corinne Cella, Amaia Corral, Iraja Elías, Ander Fernández, Jabitxin Fernández, Oier Guillán, Idoia Hernández, Unai López de Armentia, Oscar Manso, Joseba Roldán, Marina Suárez Ortiz de Zarate.

Ez ote gabilza pertsonak arrastoa utzi nahian denboran? Ez ote da sormena bera, uretan uzten saiatu garen oinatzat? Ez ote da justizia nahia, irrikan espero dugun mirakulu atea? Antzezlan honetako pertsonaiek erantzun bakarria topatu dute galderontzat: historiaren uretan *Zanbuia!* Umorea, performancea, arte plastikoak, zirkua eta kale antzerkiko energia uztartuko ditu *Zanbuia!* antzezlanak. Behin bakarrik egingo da, gainera: Metrokoadroka kolektiboak 10 urte bete dituen honetan, bere proiektuetan moduren batera edo bestera parte hartu duten 15 sortzailek esperimentu bat egingo dute. Uztailaren 9tik 13ra Ean bizitzen eta sortzen jardun(go), eta hortik aterako dena taularatuko dute uztailaren 14an.

ANTZERKIA

Metrokoadroka
Sormen Laborategia
17:30ean.
Herrian zehar
Uztailak 14
(zapatua)



PARRAPEAN



Parra bi: Violeta eta Nicanor neba-arrebak. Baten kantuez eta bestearen poemez osatutako errezitala da *Parrapean*. Txileko sortzaile handiak bi-biak, hogei-garren mendeko erreferentzia ezinbestekoak. Urteak pasatu, mendeak aldatu, baina jenioen lanak bizirik dirau. Bi artiston lanak gozatu ahal izango ditugu, blaitzen gaituen errealitatea kultur sorkuntzaren ikuspegitik tratatzeko erari buruzko hausnarketa etengabezipiztindurik.

ERREZITALDIA

Gotzon Barandiaran,
Itziar Castrillo, Ane García,
Josu Landa
20:30ean Portusolon
Uztailak 14 (zapatua)



MICE

Mice Miren Narbaiza da (Napoka Iria, Perlak, Drumkopters). Bere bakarkako diskoa aurkeztera dator Eara, eta ez da bakarrik arituko, zuzenekoetan alboan izaten dituen Ilargi Agirre, Ibai Gogortza, Fernando Neira eta Joseba Baleztenak lagunduta etorriko baita. Eibartarraren debuteko lanean islatzen den modu berean, kontzertuan giro lanbrotsu atmosferikoak, kantu argitsu eta dantzagarriak nahastuko ditu, beti rockaren bueltan.

KONTZERTUA

Miren Narbaiza, Ilargi Agirre, Ibai Gogortza,
Fernando Neira, Joseba Baleztina
22:45ean
Eskolapean
Uztailak 14 (zapatua)



PARADISU GALDUARENA

Hasierara itzuli nahi dut,
Jainkoak gizonak
ilargi eta eguzkizko seaskan
kulunkatzen zituen
aurreneko egunetara.

Bizitzara itzuli nahi dut,
adjetiborik gabe
gizona gizon hutsa
zen ilusioetako une
galdu izkutueta.


Poesiara itzuli nahi dut,
antzinako begi urdinen
garbitasun gardenera,
oihu eta marru egiten ziren
misterizko desioetara.

Sinpleziara itzuli nahi dut,
kredo, teoria eta ideologiarik
gabeko aire, su eta urezko
paradisu zaharrear
galdutako lurretara.

Haragira itzuli nahi dut,
osotasun hilezkorra den
izate betera,
sofismarik gabe maita dezakedan
amodio garbi, sortzailera.

Bustinera itzuli nahi dut,
definitzen eta mugatzen gaituzten
uste hestu eta tristerik
gabeko lehenengo udazkeneko
izan nahi nukkeen gizonarengana.

Patxi Ezkiaga, 1984 (In memoriam)



e. m. - grabatua eta pintura 2018

herriko gizonak plazan "zuzendu" zuten

UHARTEAK I

Ez dakit nor naizen,
non nagoen ere
ahaztu egiten zait batzuetan.
Begiak zabaldu eta
badia hutsa
kausitzean oroitzen dut:
hemen nago oraindik.

Negu partean
ateratzen dituzte ontzi guztiak
uretatik, auskalo
non gordetzeko. Udako eguzkitan
hondartzatik uharterantz
luzatzen diren kate
zuriak ikusten dira.

Haizea alde duten aldiro
urrunera abiatzen diren belaontziak
bereizten dira,
badia betetzen duten
kate zurietan euren lekua
hartzera urrunetik bueltan datozenak.

Martin Bidaur

AMODIOA MATEMATIKA KONTUA IZAN DAITEKE

Zazpi emango dizut
ezin hamar eman,
nekatuta nago. Zuk eman
ahal duzuna: sei, edo bost...
Berdin zait. Ez esan
ez zaitudala maite amodioa
zenbakitan jartzeagatik;
matematika kontua ere bada,
eta zazpi, gehiago ezin.
Baina dena ailegatuko da,
oraingoz aski da. Nire zazpiak
zure... zenbat?, zortziekin
nahikoa izanen dugu eguna egiteko.

Juanjo Olasagarre

TRAKAMATRAKA

Traka, traka, trakamatraka
Bihotza taupadaka nire soinua bultzaka
Dena doa presaka,
nire burua biraka.
Lainoak nire zeruan,
gorputza dardarka.
Hauxe nire marka,
azken guda dantza
Dantzak bihotzean,
aizu! egizu dantza!
Nik zure zalantza,
asmakizunen tranpa
Kanta berrien Andra Mari mamuen aurka
Txakurrak zaunka, txerriak oinka
Kalean borrokarako prest gure erronka
Non da? Zein da? Nik zer? Nor? Zu
Herriaren erantzuna badakigu
Non da? Zein da? Nik zer? Nor? Zu
Trakamatraka izerdian daramagu.

La Basu



e. m. Oleo pintura 162 x 130 cm. 1998

"batekurraren" berbek haren negarrak kontsolatu

AUSARDIARIK EZ

Ausardiarik ez, beldurrak gainezka
Geroak ekarriko duenaren kezka

Hitzak barrenean gatibu, kolpean denek ihes egingo dizuten izu.
Inertziak gida zaitzan utzi duzu, ustez bizirauteko, guztiz ez hondoratzeko.
Era berean bila etengabe, patuak zer eskainiko dizun zai zaude.
Horrela jarraituko duzu maite, barrura begiratzen hasten zaren arte.

Mice



e. m. grabatua eta pintura 2018

bide bazterrean txistu ta odola

ORBANAK PARETAN

Gaua guztiz iritsi aurretik
paretako orbanak aztertuko ditugu:
Batzuek landare-itxura dute
Bestetziek animalia mitologikoen antza.

Hipogrifoak,
..... herensugeak,
..... arrabioak.

Baina guztietan misteriotsuenak dira
leherketa atomikoak diruditenak.

Paretako zinematografoan
Arimak ikusten du gorputzak ikusten ez duena:
Gizonak belauniko
Amak besoetan umeak dituztela
Zaldizkoen monumentuak
Hostia jasotzen duten apaizak:

Elkartzen diren sexu-organoak.

Baina guztietan apartenak
dira
..... zalantza izpirik gabe
leherketa atomikoak diruditenak.

Nicanor Parra
Itzulpena: Garazi Arrula

EMAKUME LOREZAINA

Zutaz beste egiteko
jardina lantzer a noa,
bertan hartuko ahal du
nire penak abaroa.
Han arrosak jarriko,
arantza lodiz soroa,
nigan hiltzen bazara
hantxe izanen da koroa.

*Tristeziarako bioleta urdin,
krabelin gorri grinarako,
bitxiloreei hostoak kenduz
maite al nauen jakiteko;
asko maite nau, gutxi, ezer ez,
nire bihotza lasai dago.*

Bioleta alai horiek
pixkanaka koskortuta,
loratzen direlarik
urrun da zure gomuta.
Mitxoletaren lorea
nire lagunik onena,
lasai loak hartzeko
ohe burkoan barrena.

Tristeziarako bioleta urdin...

Penatzen naizenerako
garraiskaren koloreak,
erizain izango ditut
lilitegiko loreak.
Eta zu damutu aitzin
hilko banintz zorigaitzez,
hartu loreok herentzian
haiekin sendatu zaitez.

Tristeziarako bioleta urdin...

Violeta Parra
Itzulpena: Josu Landa

BELEAK ELURRETAN

Han zebiltzan
beleak
hara eta hona
hona eta hara
bele beltzak elur
zurian
beltz- beltz eginik
zein baino zein beltzago

Han zegoen
ez hara, ez hona
baina han ta hemen
elur zuria


Ez dakusagu bata
bestea gabe, batak
ez daki bestea
gabe ezer egiten

Belea beltza

Elurra zuria

Joxean Artze

Musika: eMe



e. m. grabatua eta pintura 2018

linboan daudenen hezurak esnezkoak "dis"

OINATZETAN

Urrun
ari zaizkit
mintzatzen

ozen

jada
ez dauden(en)
su hotzak

nahiak

aukerak

aukerak

erdu
atzokoen
desirak

hona

badut
bihotz bat
zuentzat

nigan

Oinak ditut
heze
lurraren barruan sarturik
ez zaizkit
sustraien lekuraino
behatzetatik iristen

hala ere
dakit
atzokoen zainak direla
dauzkadanak
nire oinatzetan eta
azalean gorderik

Oinak ditut
heze
lurraren barruan sarturik
ez zaizkit
sustraien lekuraino
behatzetatik iristen

hala ere
dakit
atzokoen galderak (zainak?) direla
dauzkadanak
nire oinatzetan
pauzu bihurturik.

Oier Guillan

LURRA, ANIMALIAK, EMAKUMEAK: DESOKUPAZIO-ARIKETA 5 EKITALDITAN



HITZALDIA

Mari Luz Esteban
11:00etan Eskolondon
Uztailak 15 (domeka)



Nola egin bidegabea eta baztertzaila den ordena sozial baten desokupazioa? Hitzaldi honetan zehar, errealitatean, fikzioan eta utopian barrenduko gara, arreta-gunea lurrean, animalietan eta emakumeengan jarrita. Helburua bizitzaren irakurketa eta aukera alternatiboak arakatzea izango da giza egoera berriak begiztatze aldera.

HERRI-BAZKARIA

15:00etan
Eskoikiz tabernan
Uztailak 15 (domeka)

kutxa birritan iltzatu!



e. m. grabatua eta pintura 2018

EME ETA OIER GUILLÁN





eMe-ren diskoa lehen aldiz entzun ondoren, bi dira nabarmendutako elementuak: lehena, sintetizadoreen eta programazioen erabilera. Kantuaren zerbitzura ipini dituzte, pop kantu berritzaile hauek eskatzen zuten tokian, hain justu. Bigarrena Nora Izagirren ahots iradokitzailea da. Bere ahotsa hegan ari da, kulunka bitxian, maiz mugimendu epifanikoak sortuz. Ez da pop elektronikoari hertsiki lotutako diskoa. Ez da soilik synth popa. Dance lan batetik oso urruti dago. Baina badu guztietatik zerbait.

Oier Guillán aktore eta poetaren kolaborazioa izango dute eMe taldekoek (Nora Izagurre, Haritz Harreguy eta Rubén Caballero).

KONTZERTUA

eMe, Oier Guillán
13:00etan
Moilan
Uztailak 15
(domeka)



NI NAIZ IZOTZ ERREGINA



La Basu emakumezkoen rap erreferentziarik handiena da Bilbon. 20 urte baino gehiagoko bidaia musikalaren ondoren, lan berri batekin itzuli da, oraingoan euskaraz. *Ni naiz izotz erregina* Euskal Herrian bakarkako emakumezko batek euskaraz argitaratutako lehen diska da. Euskarazko rapa bultzatu eta erreferente berriak sortzeko asmoz egindako lan honek, David Nanclares, Zamarro Prod, Dj Ibai eta Dafroog-en luxuzko produkzioak ditu. Siren, HaladZipo eta Koba estudioetan grabatua, eta Unai Mimenza (SoinuArt) soinuaren arduradun izanik, La Basuk hainbat kolaboratzailearen parte-hartzea izan du, María Rivero, Natalia Garmendia eta Oihana Bartrarena hain zuzen. Soinu potentea eta letra indartsuak, rap musika, dancehall, electro swing nahiz bertsoekin nahastuz, *Ni naiz izotz erregina* diskoak ez du inor epel utziko.

KONTZERTUA

La Basu
17:30ean
Frontoiko arbolapean
Uztailak 15 (domeka)

